

**Ordiziako Udala**

2018IOSB0005

- 12.- 2018rako Plantilla Organikoaren hasierako onarpena.
- 13.- 2018ko Lanpostuen Zerrendaren hasierako onarpena.

**PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:**

- .- Ordizia Lantzen S.A.-ri abala ematea Aldundiaren finantza-babesa eskuratzeko.
- .- Osoko Bilkurak Haur Eskola Zerbitzuaren kontratua esleitzeko ahalmena Alkateari eskuordetzan ematea.

**GALDE-ESKAERETAN AZTERTUTAKO GAIAK**


- .- Jarraipen-mahai bat sortzea Osoko Bilkuran hartzen diren erabakiak betetzeko.
- .- Udal aldizkaria

**ORDUTEGIA**

**HASIERA ORDUA: 19:10ean**

**AMAIERA ORDUA: 21:00etan**





Lehendakariak hasiera eman dio bilkurari, gai-zerrendako lehen puntuaren berri emanez.

**1.-2018ko maiatzaren 3ko ohiko bilkurako akta onartzea.**

Proposamena

**2018ko maiatzaren 3ko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.**

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: Bat ere ez.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (EAJ 4, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Hortaz, Lehendakari jaunak akta aho batez onartutzat eman du.**



Jarraian, Lehendakari jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

**2.- Apirileko Alkatetzako dekretuen berri ematea**

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: Bat ere ez.

**Udaleko Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.**



Jarraian, Lehendakari jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.


**3.- kontu-hartzaileak maiatzeko kontratuen gainean egindako ingerak.**

**KONTU-HARTZAILEAREN ERREPARO ORRIA ( 05/2018):**

**AURREKARIAK:**

**Kontu-hartzaileari,honako kontratu hauek epez kanpo daudela jakinarazi diote idazkaritza sailetik:**

Sozietatearen izena	Kontratuaren xedea	Kontratu a	Betearazte epea	Luzapenak	Kontratuaren prezioa	2016an gastatuta
Gesmunpal	Nahitaezko	03/11/2003	03/11/2007	---	Aldakorra	30.943,58




## Ordiziako Udala

2018IOSB0005

	diru-bilketa					
Juan M. Garmendia Amundarain	Kultur Etxeko atezaina	15/04/1986	Mugagabea	Urtez urteko luzapena	Zenbatekoa 2016an: hilerio 2.948,84 + BEZ	42.817,20
Landarri S.L.	Hilerriko zerbitzua	10/03/2005	10 urte 2015/03/10	Dekretu bidezko luzapena esleipen berria egin arte Epemuga: 2016/03/12	Gehieneko prezioa 18.000 euro + BEZ	21.937,30
Eulen Sociosanitarios	Etxez etxeko laguntza zerbitzua	24/12/2010	Gehienez 5 urte 2015/12/24	Urtez urteko luzapena kontratu berria egin arte	Tarifen araberakoa	140.409,78
Lorraz Elkartea. Arantxa Zabaleta Imaz	Arrisku egoeran dauden adingabeko eta gazteekin eremu irekian Gizarte-hezkuntzako esku-hartzearen zerbitzu publikoa	27/04/2012	Gehienez 4 urte 27/04/2016	Urtez urteko luzapena kontratu berria egin arte	Kontratuaren prezioa 60.000 euro BEZ barne  Prezioa 2016an: 65.529 euro BEZ barne	63.806,72
ERRO KOOP. Elkartea Leire Andia	D'elikatuz zentroaren kudeaketa	24/07/2012	Gehienez 4 urte 27/04/2016		Kontratuaren prezioa 90.000 euro BEZ barne	102.755,36
INDOK	Munigexen kudeaketa	Kontratu gabe	Urtekoa		Prezioa 2016an: 12.196,80 euro BEZ barne	11.243,96
LAIA S.COOP.	Agenda 21	01/04/2013	01/04/2015	Kontratu gabe	Kontratuaren prezioa 17.061 euro BEZ barne	24.407,28
Ainara	Immigrazio	01/01/201			21.773,95	21.966,02

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAA4S7TH>



Ormaetxea Harto	Zerbitzua	6			euro BEZ barne	
ALOTZA HAURTZAIN DEGIA  Guraso elkarte	Udal Haur-eskolaren kudeaketa zerbitzua .	01/09/2009	Gehienez 6 urte  01/09/2009		Kontratua ikusi Tarifak + sub.+ udal zerbitzua emateko kontratua 33.500 euro	388.104,44
Orbel, S. Coop.	Gaztelekuaren kudeaketa	04/11/2013	15.06.2017	16/10/2017	44.749,92	
Fraternidad Muprespa, S.L. Quirón prebentzioak bereganatutak o enpresa	Lan arriskuen aurreikuspena eta ebaluazioa egiteko zerbitzua	01/08/2017	01/08/2017		3.055,25 Mediku-errekonozimenduak eta analisiak kanpo.	

**a) Aplikagarria zaizkion arauak:**

**a.1) 9/2017 Kontratu Publikoen Legea, azaroaren 8koa,.**

“29. artikulua. Kontratuen iraupen-epea eta kontratuen exekuzioa.”

1. **Sektore publikoko kontratuen iraunaldia zehazterakoan, kontuan hartu beharko dira prestazioak zer-nolakoak diren eta finantzaketa nolakoa izango den, eta aldiari-aldiari prestazio horiek lehia bidez eman beharra ere bai, kontratu jakin batzuei aplikatzekoak diren arau bereziak eragotzi gabe.**

Bigarren xedapen gehigarria. Tokierakundeetarako kontratazio-arau bereziak.


1. **Alkateen eta toki-erakundeetako presidenteen eskumenekoak izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuak, administrazio-kontratu bereziak eta kontratu pribatuak, baldin eta beren zenbatekoa ez bada aurrekontuko baliabide arruntan 100eko 10 baino handiagoa, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino handiagoa; orobat izango dira haien eskumeneko mota horietako kontratuak, zenbait urterako direnean, betiere lau urte baino gehiago irauten ez badute eta urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arruntan 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino handiagoa ere.**

“35. artikulua. Kontratuaren gutxieneko edukia:

1. *Sektore publikoko ente, organismo eta erakundeek egiten dituzten kontratuak aipamen hauek jaso behar dituzte nahitaez, pleguetan azaltzen ez badira:*

***l) Hala egokituz gero, prezioa zein aurrekontu-kredituren edo kontabilitate-programa edo -errubrikaren kontura ordainduko den.***

**a.2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.**



“67. artikulua. Legezketasunaren kontrola.”

1.- Kontuhartze-eginkizunaren helburua, haren legezketasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haiek eskubide eta betebeharrak ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasuntza publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu:

a) Eskubideak edo betebeharrak ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente gutzietan kontuhartze kritikoa edo aurretiazkoa.

b) **Ordainketa-aginduaren erazko kontuhartzea.**

c) **Ordainketaren kontuhartze materiala.** Udalbatzaren erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontuhartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoan erabilpenerako amankomunatuak erantsiko zaie.

“70. artikulua. Ingerak.”

1.- Kontuhartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontuhartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere ingerak idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.

3.- Ingera gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetza etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedientean **funtssezko beharkizun** edo izapidetza alde batetara utzi direnean.


4.- Ingerak ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazibeharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

**a.3) 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.**

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testuategia aldatzen du eta honela geratu da aldatuta Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testuategia:

“213. artikulua. Barneko kontrola.”

Toki-entitateetako organo kontuhartzaileek ekitaldi bakoitzean garatutako kontrol horien emaitzak jasoko dituen laburpen-txosten bat igorriko diote, urtero, Estatuko Administrazioaren Kontuhartzailetza Nagusiari, aurreko leherkadetan adierazitako arauetan xedatutako epea eta edukia errespetatuz.»



“218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak.”

1. Kontu-hartzaitzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.

**Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**


Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organo eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleituaren duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

3. Kontu-hartzaitzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»

Hile honetan irregulartasun egoeran dauden kontratuen ondorengo fakturak iritsi dira:

<b><u>ERREPARO FAKTURAK</u></b>	<b><u>MAIATZA</u></b>	
<b>HORNITZAILEA</b>	<b>FAKTURA ZKIA</b>	<b>ZENBATEKOA</b>
J.M.GARMENDIA AMUNDARAIN	2018/05	3.660,98
ALOTZA HAURTZAINDEGIA	19	38000
LORRATZ ELKARTEA	117	5460,75
INDOK	1100	490,05
LAIA, S.COOP.	18/19	1492,83
ERRO KOOP. ELKARTEA	005U/18	7640,25
AINARA ORMAETXEA HARTO	87	1.814,49
AINARA ORMAETXEA HARTO	88	1.814,49
EULEN SERV.SOCIOSAN., S.A.	3532118	3.543,54
ORDIZIA GARBIKETAK L, S.L.	30	286,48
LANDARRI, S.L.U.	1800243	80,08
LANDARRI, S.L.U.	1800244	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800245	80,08
LANDARRI, S.L.U.	1800265	80,08
LANDARRI, S.L.U.	1800267	401,07
LANDARRI, S.L.U.	1800268	80,08
LANDARRI, S.L.U.	1800269	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800270	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800271	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800298	320,87



Ordiziako Udala

2018IOSB0005

LANDARRI, S.L.U.	1800308	320,87
	<b>GUZTIKOA</b>	<b>66.850,47</b>

**ONDORIOAK:**

- a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregulartasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira
- b) Zerrendatutako kontratuen fakturen ordainketen izapidetza etengo da, Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez alkateak hartutako ebazpen guztien inguruan eta **puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

*Ordiziako Kontu-hartzailea.- Miguel Zubizarreta Elicegui*

**2018/0551. DEKRETUA**

**HONAKO HAU IKUSITA:**

- Kontu-hartzaileak 2018ko maiatzaren 24an egindako 05/2018 txostena, indarrean ez dauden kontratuei dagokien zenbait fakturei ingera adierazten diena.
- Zerrendan dauden fakturak, epea amaitu ostean indarrean ez dauden eta luzapen epea ere agortuta duten zerbitzu-kontratuei dagozkie.
- Gaur egun dagoen lan-pilaketak kontratazioan egunean egotea eragozten du: Araudi berrien ugaritzeak, administrazio elektronikoaren ezarpenak gardentasun irizpideen baitan administrazioak betebeharrak jakin batzuk izateak espediente guztiak zorrotasun handiagoarekin bideratzera eta beste erakunde eta administrazio batzuei gai askoren inguruko informazioa helaraztera garamatza.
- Hala eta guztiz ere zehaztutako kontratuak eguneratzen eta arautzen ahalegintzen ari gara eta lehenbailehen eguneratu ahal izateko dagozkien teknikariekin pleguak prestatzeko eta plangintza egiteko bilerak egiten ari gara.
- Plangintza hori emaitzak ematen hasi da.
- Hala ere eta kontuan izanda zerbitzuak ematen ari direla horietako asko beharrezkoak edo ezinbestekoak direlako zerbitzuen gastua ordaintzea egokitzen da.

Horregatik guztiagatik:

**HONAKO HAU ERABAKI DUT:**

\* Jarraian zehazten diren fakturak ordaintzeko agindua ematea eta gobernu taldeak kontratuak eguneratzeko konpromisoa hartzea eta lan hau lehenestea.

\* Dekretu hau doakionari jakinaraztea.

Facturas Reparó


Mayo

<b>HORNITZAILEA Proveedor</b>	<b>FAKTURA ZKIA Nº Factura</b>	<b>ZENBATEKOA Importe</b>
J.M.GARMENDIA AMUNDARAIN	2018/05	3.660,98
ALOTZA HAURTZAINDEGIA	19	38.000,00

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAA4S7TH>

Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus





## Ordiziako Udala

2018IOSB0005

LORRATZ ELKARTEA	117	5.460,75
INDOK	1100	490,05
LAIA, S.COOP.	18/19	1.492,83
ERRO KOOP. ELKARTEA	005U/18	7.640,25
AINARA ORMAETXEA HARTO	87	1.814,49
AINARA ORMAETXEA HARTO	88	1.814,49
EULEN SERV. SOCIOSAN. S.A.	3532118	3.543,54
ORDIZIA GARBIKETAK L, S.L.	30	286,48
LANDARRI, S.L.U.	1800243	80,08
LANDARRI, S.L.U.	1800244	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800245	80,08
LANDARRI, S.L.U.	1800265	80,08
LANDARRI, S.L.U.	1800267	401,07
LANDARRI, S.L.U.	1800268	80,08
LANDARRI, S.L.U.	1800269	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800270	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800271	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800298	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800308	320,87
	<b>GUZTIZKOA</b>	<b>66.850,47</b>

\* Dekretu hau doakionari jakinaraztea. \* *Notifíquese el presente Decreto al interesado.*  
ALKATEAK / EL ALCALDE,

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Kontu-hartzaile jaunak

Ingeren txostena aurreko martxoan indarrean sartutako Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen araudira egokitu dela jakinarazten du. Gainera, Idazkaritzatik jakinarazi diote bi kontratu bukatu direla eta horiek ere, gehitu ditu.


Kontratu berri horiei dagozkien fakturak datorren hilabeteko ingeren txostenan isalatuko direla esan du.

#### **Udaleko Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.**



Jarraian, Lehendakari jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

#### **4.- Gizarte Ongizate Sailak ACCU (Kolitis Ultzeradun eta/edo Crohn gaitzen gaixoak) elkartearen izenean aurkeztutako proposamena "beharra daukat" egitasmoarekin bat egiteko.**



Proposamena

**UDALEKO ONGIZATE SAILAK, ACCU GIPUZKOA ELKARTEAREN IZENEAN, HAUSNARKETARAKO, EZTABAIDARAKO ETA OSTEAN, OSOKO BILKURAN ONARTZEKO AURKEZTEN DUEN PROPOSAMEN-MOZIOA, ORDIZIAKO UDALAK “BEHARRA DAUKAT!” EGITASMOAREKIN BAT EGIN DEZAN. -“BEHARRA DAUKAT!”**

**ARRAZOIEN AZALPENA**

**Accu Gipuzkoari buruz**

Accu Gipuzkoa irabazi asmorik gabeko elkarte bat da eta gure herrialdean Kolitis Ultzeradun eta Crohn gaitzak jasaten dituzten gaixoei informazioa eta aholkularitza ematea du helburu.

Accu Gipuzkoa ACCU ESPAÑA (Confederación de Asociaciones de Crohn y Colitis Ulcerosa de España) elkartearen barruan dago eta era berean, hau, EFCCA (Federación Europea de Enfermos de Crohn y Colitis Ulcerosa) elkartearen parte da.

ACCU Gipuzkoako kideok, (HHA) Hesteetako Hanturazko Gaixotasunari buruzko informazio argia zehatza eta egiaztatua ematen dugu: GAIXO ETA SENITARTEKOEN BEHARREI ZUZENDUTAKO JARDUERAK: PSIKOLOGIKOAK, ELIKADUDARI BURUZKOAK, LAN ARLOKOAK, HARREMANEN INGURUKOAK, PRESTAKUNTZAZKOAK. Gainera, BEHAR BERRIKO DETEKZIO proiektuak garatzen ditu galdeketen, ikerketen edota elkarrizketa pertsonalen bitartez.

**Hesteetako hanturazko gaixotasunari buruz.**

Hesteetako hanturazko gaixotasunak (HHG) bi patologia izan ditzake: Kolitis Ultzeraduna eta Crohn gaitza.


España mailan, Kolitis Ultzeraduna Crohn gaitza baino ohikoagoa da, % 58 eta % 42 hurrenez hurren, eta datozen urteotan tarte hori areagotzea espero da. Bi gaixotasunek komunean hau dute: hesteetako gaitzak izanik, autoimmuneak, hanturazkoak eta kronikoak direla, zeintzuk agerraldietan azaltzen diren. Batetik garapenaldiak (aldi aktiboa) eta bestetik arintze epeak izaten dira (geldiune aldia). Bi kasuetan, organismoak elikagaiak digeritzeko eta mantenguzkoak xurgatzeko daukan gaitasuna eraldatzen da eta horretaz gain, ezaugarri kliniko eta patologiko antzekoak dituzte. Sintomarik ohikoenak hauek dira: beherakoa, odola kaketan, nekea, sabeleko mina, jateko gogo gutxi, pisua galtzea eta sukarra.

Halar ere, ezberdintasun kliniko eta patologikoak aurki ditzakegu bien artean. Adibidez, kaltetutako eremuan. Kolitis Ultzeradunaren kasuan, heste lodia ren horman (kolona) hanturak sortzen dituen kalteak kronikoak bihurtzen dira, Crohn gaitzan aldiz, digestio-aparatuaren edozein tokitan agertu daitezke (ahotik uzkiraino).

Bata edo bestea eduki daiteke, sekula ez biak batera. Bi gaixotasun horietatik hantura zeinek eragin duen zalantza dagoenean, kolitis zehaztugabearen izena ematen diogu.

Crohn gaitza eta Kolitis Ultzeraduna gaixotasun kronikoak dira, ez daukate behin betiko tratamendurik. Hau da, ezin dira guztiz sendatu Hala ere, kontutan hartu behar da jasotzen diren tratamenduen arabera, gaixotasun hauen bilakaera aldagarria dela: gaixotasunaren pronostikoan eta bilakaeran aldaketak erakutsi dituztenak epe motz eta luzean, hain zuzen ere.

Hala ere, tratamenduen aurrean ematen den erantzuna eta bilakaera BANAKAKOA da. Tratamendu hauen eraginkortasuna gaixo batetik bestera aldatzen da eta batzuetan, beharrezkoa da sendagai ezberdinekin probatzea gaixoarentzat egokiena dena lortu arte.



**Ordiziako Udala**

2018IOSB0005

### **EGITASMOA:**

“BEHARRA DAUKAT!” egitasmoa kutsakorra ez den osasun-arazoa edukita, komuna presaz erabili behar duten pertsonentzat pentsatua dago. Gaixo hauek gehien larritu eta arduratzen duena etengabe, eta batzuetan ustekabean, komunera joan beharra da.

Zenbait pertsonak, egoera honen aurrean, bere bizitza-kalitatea murriztua ikusten dute, etxetik ateratzea edo lagunarteko harremanak mantentzea zaila delako erabilgarria den komun bat gertu ez badago beharra dagoenerako.

### **XEDEA**

1.- Pazienteen bizi-kalitatea hobetzen laguntzea, premia duten une eta lekuetan komunera azkar eta doan joateko aukera emanda.

2.- Hesteetako hanturazko gaixotasunei buruzko informazioa zabaltzea (Crohn gaitza eta Ultzeradun Kolutisa) eta paziente horiek dituzten premia eta beharren inguruko kontzientzia gizartean eragitea.

### **ERABAKIAK**

**Ordiziako Udalak ACCU Elkarteak sustatutako “BEHARRA DAUKAT!” proiektuarekin bat egitea. Esteetako hanturazko gaixotasunak (Crohn gaitza eta Ultzeradun Kolutisa) dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko helburuarekin, behar dutenean, Udaletxearen menpeko establezimenduetan eta tokietan azkar eta doan komuna erabiltzeko erraztasuna emanez.**

**Halaber, Ordiziako Udalak ACCU Elkarteak udalerrian aurrera eramaten dituen kanpainetan laguntzeko konpromisoa hartzea. Ordiziarrak Esteetako hanturazko gaixotasunen (Crohn gaitza eta Ultzeradun kolutisa) eta gaixoen beharren gainean informatzeko eta kontzientziazteko helburuarekin.**

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Dubreuil jaunak

Esan du hainbat hilabete daramatzatela lanean, herriko merkatari eta ostalariek kanpainarekin bat egin dezaten.

Osoko Bilkuran dagoen elkarteko ordezkari batek esan du gaixotasun hori daukaten pertsonak, batzuetan, komunera joateko premiazko beharra daukatela.


Kanpaina honetan datza: establezimenduek erraz ikus daitezkeen pegatinak jartzea pertsona horiek, kontsumitu barik, komunera sartu ahal izateko.

#### Maiza andreak

Iradokitzen du pegatinak erraz ikustekoak izan behar direla, kaltetutako pertsonak txartela erakusteko beharrik eduki gabe.

#### Dubreuil jaunak

Erantzuten dio ikusi beharko dela alderdi guzti horiek biltzen duen pegatina nola diseinatuko den.



**Ordiziako Udala**

2018IOSB0005

### Bozketa


Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (EAJ 4, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.**



Jarraian, Lehendakari jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

**5.- Gizarte Ongizate Sailak BEGISARE (Erretinosi Pigmentarioak kaltetutakoen elkarte) elkartearen izenean aurkeztutako proposamena "Ikusmen murriztua dut-Hemen kontuan dugu" kanpainarekin bat egiteko.**

### Proposamena

**GIZARTE ONGIZATE SAILAK, "BEGISARE" ERRETINOSI PIGMENTARIOAK GIPIZKOAN ERAGINDAKOEN ELKARTEAREN IZENEAN, HAUSNARKETARAKO, EZTABAIDARAKO ETA OSTEAN, OSOKO BILKURAN ONARTZEKO AURKEZTEN DUEN PROPOSAMEN-MOZIOA, ORDIZIAKO UDALAK "IKUSMEN MURRIZTUA DUT-HEMEN KONTUAN DUGU" KANPAINAREKIN BAT EGIN DEZAN.**

### ARRAZOIEN AZALPENA

#### **BEGISAREri buruz**

ERRETINOSI PIGMENTARIOAK GIPIZKOAN ERAGINDAKOEN ELKARTEA "BEGISARE" irabazi asmorik gabeko elkarte da eta bere lurralde-eremua Gipuzkoako Lurralde Historikoa da; hala ere, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan ere, hainbat ekimen eraman ditu aurrera.


*Retinosis Gipuzkoa* BEGISAREren estatutuetan jasotako helburuak hauek dira: Erretinosi Pigmentarioaren inguruan gizartea informatu eta sentsibilizatzea, gaitz horrek eragindako guztien bizi-kalitate egokia erdiesten lagunduko duen ikerketa genetikoaren inguruan sinergia oro batuz.

Xede horiek aurrera eraman ahal izateko Elkarteak bere estatutuetan aurreikusitako jarduera ezberdinak egiten ditu, besteak beste hauek:

- .- Gaitzaren inguruan ematen diren aurrerakuntza mediku-zientifikoaren berri ematea.
- .- Erretinosi Pigmentarioaren alorrean oftalmologo, genetista, zientzialari, ikerketa-talde, eta abarrekin elkarlana sustatzea.
- .- Gaixotasunak eragindakoentzat, baita beraien senide eta lagunentzat ere, gizarte jarduerak antolatzea.
- .- Antzeko helburuak dituzten bestelako elkarte edota erakundeekin elkarlana bultzatzea.
- .- Izaera publiko zein pribatuko erakunde desberdinetan baliabide ekonomikoak eskuratzea.

#### **Zer da Erretinosi Pigmentarioa**

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAA4S7TH>



**Ordiziako Udala**

2018IOSB0005

Erretinosi Pigmentarioa ez da gaixotasun bakar bat, baizik eta endekapenezko eta herentziazko gaixotasunen multzoa. Horiek begiari eragiten diote eta ikusmenaren galera motel eta mailakatuagatik bereizten dira. Galera iraunkor horrek, gutxienez lehenengo etapatan, gaueko eta periferiako ikusmenari eragiten dio eta zenbait kasuetan, itsumena ere eragin dezake. Nahiz eta gaixotasunarekin jaiotzen den, arraroa da nerabezaroa baino lehen sintomak agertzea. Eragindako pertsona ez da bere gaixotasunaren jakitun fase garatueta aurkitzen dena arte, horregatik, diagnostiko azkarra egitea garrantzitsua da.

Gaitzak nagusiki erretinari eragiten dio, begiaren barneko aldea estaltzen duen geruza da eta geure inguruko munduaren irudiak jaso, prozesatu eta nerbio optikoen bidez, burmuinera bidaltzeaz arduratzen da gero hauteman ditzagun. Erretinosi Pigmentarioan erretinako zenbait zelulen mailakako suntsiketa ematen da (batik bat ftohartzaileena) eta ohikoa da begiaren hondoa pigmentoen pilaketak aurkitzea.

Erretinosi Pigmentarioa endekapenezkoa da denboran zehar galera iraunkorra delako. Ikuseremua eta ikusmen-zorroztasuna murriztuz doa poliki-poliki bizitzan zehar. Ez da bat-bateko gertakaria ezta lineala ere.

Gaixotasun hau "arraroetako" da. Eragina 3000/4000 pertsona artean batekoa da gutxi gorabehera.

## **EGITASMOA**

### **“Ikusmen Murriztua Dut-Hemen kontuan dugu” Kanpaina**

Ekainean, Ordiziako 750. urteurrenaren ekintzen barruan, IKUSMEN MURRIZTUA hainbat alorretatik jorratuko dugu:

Aurreikusten diren ekintzen artean hauek aipatuko ditugu:

- Barrenan, “Ikusmen Murriztua bizi ezazu” erakusketa.
- Herritarrentzako hitzaldia
- Merkatari eta ostalarien laguntzarekin “Ikusmen Murriztua Dut-Hemen kontuan dugu” lelopean zabaltze eta integrazio kanpaina.
- Udaletxean eta udal-bulegoetan (kiroldegia, Zuhazti, Kultur etxea, ikastetxeak...) “Ikusmen Murriztua Dut-Hemen kontuan dugu” leloarekin pegatinak, kartelak eta liburuxkak jarri.

## **ERABAKIA**

**Ordiziako Udalak “BEGISARE” ELKARTEAK sustatutako “IKUSMEN MURRIZTUA DUT-HEMEN KONTUAN DUGU” kanpainarekin bat egitea, Ordizian ERRETINOSI PIGMENTARIOAK eragindako pertsonen bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko helburuarekin.**

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:


#### Dubreuil jaunak

Jakinarazten du BEGISARE hasieratik Ordiziako osasun taldearekin lanean ari dela.

Momentu honetan, Ordiziak kanpainarekin bat egin dezan eskatu dute.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAA4S7TH>

Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - [arretabulegoa@ordizia.eus](mailto:arretabulegoa@ordizia.eus) [www.ordizia.eus](http://www.ordizia.eus)



## Ordiziako Udala

2018IOSB0005

Gaineratzen du, dokumentua Osoko Bilkurarako deialdiarekin bidali ostean, elkarteak hainbat aldaketa sartzeko eskatu duela. Aldaketak zeintzuk diren zehazten du.

Esan du jarraian bozkatuko den mozioaren behin betiko testua Idazkariari bidaliko diola. Mozioa honela idatzita geratuko da:

### Proposamena

**GIZARTE ONGIZATE SAILAK, "BEGISARE" ERRETINOSI PIGMENTARIOAK GIPUZKOAN ERAGINDAKOEN ELKARTEAREN IZENEAN, HAUSNARKETARAKO, EZTABAIDARAKO ETA OSTEAN, OSOKO BILKURAN ONARTZEKO AURKEZTEN DUEN PROPOSAMEN-MOZIOA, ORDIZIAKO UDALAK "IKUSMEN MURRIZTUA DUT-HEMEN KONTUAN DUGU" KANPAINAREKIN BAT EGIN DEZAN.**

### **ARRAZOIEN AZALPENA**

#### **BEGISAREri buruz**

ERRETINOSI PIGMENTARIOAK GIPUZKOAN ERAGINDAKOEN ELKARTEA "BEGISARE" irabazi asmorik gabeko elkarte da eta bere lurralde eremua Gipuzkoako Lurralde Historikoa da; hala ere, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan ere, hainbat ekimen eraman ditu aurrera.

*Retinosis Gipuzkoa* BEGISAREren estatutuetan jasotako helburuak hauek dira: Erretinosi Pigmentarioaren inguruan gizarte informatu eta sensibilizatzea, gaitz horrek eragindako guztien bizikaltate egokia erdiesten lagunduko duen ikerketa genetikoaren inguruan sinergia oro batuz.

Xede horiek aurrera eraman ahal izateko Elkarteak bere estatutuetan aurreikusitako jarduera ezberdinak egiten ditu, besteak beste hauek:

- Gaitzaren inguruan ematen diren aurrerakuntza mediku-zientifikoaren berri ematea.
- Erretinosi Pigmentarioaren alorrean oftalmologo,genetista, zientzialari, ikerketa-talde, eta abarrekin elkarlana sustatzea.
- Gaixotasunak eragindakoentzat, baita beraien senide eta lagunentzat ere, gizarte jarduerak antolatzea.
- Antzeko helburuak dituzten bestelako elkarte edota erakundeekin elkarlana bultzatzea.
- Izaera publiko zein pribatuko erakunde desberdinetan baliabide ekonomikoak eskuratzea.


#### **Zer da Erretinosi Pigmentarioa**

Erretinosi Pigmentarioa ez da gaixotasun bakar bat, baizik eta endekapenezko eta herentziazko gaixotasunen multzoa. Horiek begiari eragiten diote eta ikusmenaren galera motel eta mailakatuagatik bereizten dira. Galera iraunkor horrek, gutxienez lehenengo etapatan, gaueko eta periferiako ikusmenari eragiten dio eta zenbait kasuetan, itsumena ere eragin dezake. Nahiz eta gaixotasunarekin jaiotzen den, arraroa da nerabearoa baino lehen sintomak agertzea.

Eragindako pertsona ez da bere gaixotasunaren jakitun fase garatuetan aurkitzen denera arte, horregatik, diagnostiko azkarra egitea garrantzitsua da.

Gaitzak nagusiki erretinari eragiten dio, begiaren barneko aldea estaltzen duen geruza da eta geure inguruko munduaren irudiak jaso, prozesatu eta nerbio optikoen bidez, burmuinera bidaltzeaz arduratzen da gero hauteman ditzagun. Erretinosi Pigmentarioan erretinako zenbait zelulen mailakako suntsiketa ematen da (batik bat ftohartzaileena) eta ohikoa da begiaren hondoan pigmentoen pilaketak aurkitzea. Erretinosi Pigmentarioa endekapenezkoa da denboran zehar galera iraunkorra delako.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAA4S7TH>



Ikuseremua eta ikusmen-zorroztasuna murriztuz doa poliki-poliki bizitzan zehar. Ez da bat-bateko gertakaria ezta lineala ere.

Gaixotasun hau "arraroetakoa" da. Eragina 3000/4000 pertsona artean batekoa da gutxi gorabehera. Gaur egun erretinosi pigmentarioak ez du sendaketarik nahiz eta itxaropenerako ate bat irekitzen duten ikerketa bidedesberdinetan lantzen ari izan.

## EGITASMOA

### “Ikusmen Murriztua Dut-Hemen kontuan dugu” Kanpaina.

Jendea sentsibilizatzeko bideratzen ditugun pertsona eta ekonomia baliabideen artean, “Ikusmen Baxua Dut” bereizgarria sortu dugu. Horren helburua, ikusmen murriztua duten pertsonen bizitza-kalitatea hobetzea da, hori sorrarazten duen arrazoia edozein delarik ere, zehazki honetarako:

1. Jendarteratzea errazteko eta ikusmen murriztua duten pertsonen ulermena hobetzeko.
2. ikusmen murriztuaren gainean herritarrak sentsibilizatzeko.

Erretinosi pigmentarioa ikusmenaren murrizketa eragiten duen gaixotasun bat da, baina ez da bakarra, ezta ezagunena ere. Hauek ere ikusmen murriztua eragiten dute eta herritarren % 2k pairatzen du: ALME, glaukoma, erretinopatia diabetikoa, aniridia eta abar.

Ekainean, Ordiziako 750. urteurrenaren ekintzen barruan, IKUSMEN MURRIZTUA hainbat alorretatik jorratuko dugu:

Aurreikusten diren ekintzen artean hauek aipatuko ditugu:

- Barrenan, “Ikusmen Murriztua bizi ezazu” erakusketa.
- Herritarrentzako hitzaldia
- Merkatarri eta ostalarien laguntzarekin “Ikusmen Murriztua Dut-Hemen kontuan dugu” lelopean zabaltze eta integrazio kanpaina.
- Udaletxean eta udal-bulegoetan (kiroldegia, Zuhazti, Kultur etxea, ikastetxeak...) “Ikusmen Murriztua Dut-Hemen kontuan dugu” leloarekin pegatinak, kartelak eta liburuxkak jarri.

## ERABAKIA

**Ordiziako Udalak “BEGISARE” ELKARTEAK sustatutako “IKUSMEN MURRIZTUA DUT HEMEN KONTUAN DUGU” kanpainarekin bat egitea, Ordizian, erretinosi pigmentarioak edo beste patologia batek eraginda, ikusmen murriztua duten pertsonen bizitza-kalitatea hobetzeko helburuarekin; eta Ordizia, ikusmen murriztua duten pertsonetikiko, barneratzaile eta integratzaileago bilakatzea**


### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (EAJ 4, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak 1)  
Kontrako botoak: 0  
Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.**





Jarraian, Lehendakari jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

**6.- 2017ko udal aurrekontuaren likidazioaren berri ematea.**

Proposamena

Ordiziako Udaleko Kontu-hartzaileak, 2017ko aurrekontuaren likidazioari buruz ondorengo txostena egin du, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan jasotakoa betez:

**TXOSTENA**

Udaletxe honen aurrekontua, 2017 urteari dagokiona, ez zen onartu ondorioz, 2016ko behin betiko aurrekontua automatikoki luzatua izan zen. Aurrekontu horrek jasotako ordainketa kredituen zenbatekoa, eta ekitaldian zehar onartutako aldaketena, ondoko taulan xehetzen da:

Hasierako aurrekontua:.....	11.163.763,02
Kreditu gaikuntzak:.....	183.869,22
Kreditu	500.984,98
Baliogabetzearen ziozko bajak:.....	0,00
Kreditu	1.652.990,56
	<hr/>
Behin betiko aurrekontua:.....	13.501.607,78


**1.- NORAINO GAUZATU DEN GASTUEN AURREKONTUA**

Goian adierazi diren ordainketa kredituen kargura onartutako obligazioak ondokoak dira, portzentajetan eta kapituluka, aurtengo ekitaldian nahiz aurreko urtekoan:

KAPITULUA	2017 EKITALDIA			2016 EKITALDIA		
	BEHIN BETIKO AURREKONTUA	OBLIGAZIO ONARTUAK	%	BEHIN-BETIKO AURREKONTUA	OBLIGAZIO ONARTUAK	%
1 - Pertsonal gastuak	4.027.177,93	4.027.177,93	100,00	3.846.650,50	3.846.650,50	100,00
2 - Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	2.940.976,64	2.780.935,18	94,56	2.918.519,95	2.750.312,97	94,24
3 - Finantza gastuak	19.532,68	19.532,68	100,00	39.390,11	25.759,57	65,40
4 - Transferentzia arruntak	3.697.646,54	3.562.796,34	96,35	3.795.933,60	3.588.963,19	94,55
5 - Kreditu globala eta bestelako ustekabeak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
6 - Inbertsio errealak	2.034.392,89	752.876,17	37,01	1.209.712,23	437.373,83	36,16
7 - Kapital transferentziak	267.989,57	76.809,00	28,66	296.021,00	258.420,43	87,30
8 - Finantza aktiboak	0,00	0,00	0,00	289.945,00	289.945,00	100,00
9 - Finantza pasiboak	513.891,53	513.891,53	100,00	445.610,00	379.389,02	85,14
<b>GUZTIRA</b>	<b>13.501.607,78</b>	<b>11.734.018,83</b>	<b>86,91</b>	<b>12.841.782,39</b>	<b>11.576.814,51</b>	<b>90,15</b>

6. kapituluak (Inbertsio errealak) honako gauzatze portzentajea agertzen du, faseen arabera, aurtengo ekitaldian nahiz aurrekoan:





GAUZATZE FASEA	2017 EKITALDIA		2016 EKITALDIA	
	ZENBATEKOA EUROTAN	KREDITUEN GUZTIZKOAREN %	ZENBATEKOA EUROTAN	KREDITUEN GUZTIZKOAREN %
Obligazio onartuak (O fasea)	752.876,17	37,01	437.373,83	36,16
Gastu erabiliak (D fasea)	855.103,20	42,03	579.693,93	47,92
Gastu baimenduak (A fasea)	1.665.480,95	81,87	761.460,13	62,95
Kredituak, guztira	2.034.392,89	100,00	1.209.712,23	100,00


## 2.- NORAINO BURUTU DIREN OBLIGAZIO ONARTUAK

Aurrekontuko obligazio onartuengatik ordaintzek (beraz, itxitako ekitaldietakoak sartu gabe) ondoko portzentajeak agertzen dituzte kapituluka, bai aurtengo ekitaldian bai aurrekoan ere:

KAPITULUA	2017 EKITALDIA			2016 EKITALDIA		
	OBLIGAZIO ONARTUAK	ORDAINKETA LIKIDOAK	%	OBLIGAZIO ONARTUAK	ORDAINKETA LIKIDOAK	%
1 - Pertsonal gastuak	4.027.177,93	4.017.545,43	99,76	3.846.650,50	3.832.276,76	99,63
2 - Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	2.780.935,18	2.221.896,53	79,90	2.750.312,97	2.300.122,29	83,63
3 - Finantza gastuak	19.532,68	19.532,68	100,00	25.759,57	25.759,22	100,00
4 - Transferentzia arruntak	3.562.796,34	3.243.033,20	91,02	3.588.963,19	3.298.234,83	91,90
5 - Kreditu globala eta bestelako ustekabeak	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
6 - Inbertsio errealak	752.876,17	659.429,62	87,59	437.373,83	319.138,83	72,97
7 - Kapital transferentziak	76.809,00	31.000,00	40,36	258.420,43	78.667,47	30,44
8 - Finantza aktiboak	0,00	0,00	0,00	289.945,00	289.945,00	100,00
9 - Finantza pasiboak	513.891,53	513.891,53	100,00	379.389,02	379.389,02	100,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>11.734.018,83</b>	<b>10.706.328,99</b>	<b>91,24</b>	<b>11.576.814,51</b>	<b>10.523.533,42</b>	<b>90,90</b>

Bereziki, beren garrantzi kuantitatiboa ikusirik, ondorengo partidak nabarmentzekoak dira:


Partida		Ppto. Definitivo	Obligación	%
1 481.05.335.00.1800 2017	Egunkaria euskaraz: Goierriko Hedabideak	20.100,00	20.100,00	100,00%
1 131.01.431.10.0400 2017	Aldi bat.perts. Azoka bereziak.	13.950,00	20.104,88	144,12%
1 643.01.151.00.0700 2017	San Bartolome proiektua idaztea	20.750,00	20.570,00	99,13%
1 120.01.934.00.0400 2017	Oin.Ord..Admin.finantz.	18.685,00	21.506,56	115,10%
1 121.01.923.10.0400 2017	Ord. Osag.. Admin.finantz..	21.195,00	21.532,27	101,59%
1 121.01.925.00.0400 2017	Ord. Osag.. Admin.finantz..	21.195,00	21.532,27	101,59%
1 121.01.337.20.0400 2017	Ord. Osag.. Gazteria	21.195,00	21.545,01	101,65%
1 221.01.323.20.1800 2017	Argindarra. Ikast.URDANETA	21.563,86	21.563,86	100,00%
1 481.02.912.00.0100 2017	Talde Politikoei Transf.	21.840,00	21.840,00	100,00%
1 226.02.912.00.0100 2017	Protok. eta ordezk. gast. G. Organoak	22.000,00	22.590,17	102,68%
1 226.98.338.10.1400 2017	HAINBAT GASTU. Zaindariaren jaiak	24.000,00	22.659,09	94,41%
1 120.01.932.00.0400 2017	Oin.Ord..Admin.finantz.	14.435,00	22.851,86	158,31%
1 227.01.311.20.0800 2017	Garbiketa. Komunak	23.123,07	22.919,43	99,12%

**Ordiziako Udala**

2018IOSB0005

1 226.06.231.50.1100 2017	SENSIBIL. JARDUK.Berdintasuna	23.019,47	22.943,02	99,67%
1 160.01.165.00.0400 2017	Giz.seg. Argiteria	22.410,00	23.427,88	104,54%
1 222.02.920.00.0300 2017	Komunikazio postalak. Admin.Orokor.	18.780,34	23.776,85	126,61%
1 226.91.431.10.1400 2017	"ARTZAIN EGUNA" FERIA	20.000,00	23.962,03	119,81%
1 481.03.337.10.1100 2017	ZUHAIZTI JUBILATUEN ETA PENTSIOD. ELKART	29.900,09	24.000,09	80,27%
1 120.01.334.00.0400 2017	Oin.Ord.. Kultura	16.255,00	24.110,25	148,33%
1 160.01.931.00.0400 2017	Giz.seg. Admin.finantz.	21.430,00	24.479,23	114,23%
1 160.01.912.00.0400 2017	Giz.seg. Gob. Org.	29.450,00	24.610,08	83,57%
1 160.01.335.00.0400 2017	Giz.seg.Eusk.sust.	23.065,00	24.690,05	107,05%
1 120.01.165.00.0400 2017	Oin.Ord.. Argiteria	24.350,00	25.439,92	104,48%
1 121.01.231.50.0400 2017	Ord. Osag.. Berdintasuna	36.520,00	26.457,97	72,45%
1 120.01.332.10.0400 2017	Oin.Ord.. Kultura	26.415,00	26.952,93	102,04%
1 642.02.151.00.0700 2017	Obrak eta proiektuak San Bartolome	392.863,51	27.050,27	6,89%
1 121.01.934.00.0400 2017	Ord. Osag.. Admin.finantz..	29.013,96	27.282,17	94,03%
1 643.01.165.00.0800 2017	ESTUDIOS Y PROYECTOS. ALUMBRADO PUBLICO	29.652,08	27.557,75	92,94%
